

FUNTSEZKO JARDUERAK:



Gure proiektuak behar bezala funtziona dezan, ondo planifikatu behar dugu zer egin behar duen taldekide bakoitzak, etengabeko lana izateko. Bestalde, garrantzitsua da lana ondo zatitzea eta bakoitzak ahal duen guztia egiteko, azken lana eman aurretik guztiok lankideen lana berrikusi behar dugulako, gure akatsak ikusteko eta akats horietatik ikasi ahal izateko.

Garrantzitsua da enpresaren webgunea eta on-line denda kudeatzeko, mantentzeko eta sustatzeko jarduera konstantea izatea. Deseinua garrantzitsua izango da, bezeroei produktuak estetikoki gustatzen ez baldin bazaie ez dute erosiko gure produktua, horregatik diseinuan denbora inbertitu behar dugu.



Gure enpresaren ikuspegi on bat erakutsi beharko dugu, horrela bezeroen lehiatasuna lortzeko eta horrela haiek geroz eta gehiago enpresaren parte izateko. Bezero horiek bere kontaktuekin zihurtasunez hitz eginda arrakasta handiagoa lortuko dugu.

Gehitu behar dugu, lanarekin konstanteak izan behar dugula jasotzen ditugun eskaera guztiei erantzun ahal izateko, eta produktua behar bezala paketatzea hondatu ez dadin.